

## 1 FASEA IBILGAILUEN ERABILERA



Ibilgailu batean etxe bardineko biztanleak bidaiatzen diranean, ibilgailuek dabezan leku guztiak erabili ahalko dira, maskarilla erabili gabe.



Bi leku homologatu dabezan ziklomotor eta motozikletetan bi pertsona joan ahalko dira, beti be biseradun kaskoa edo maskarilla erabilita. Eskularruen erabilera nahitaezkoa izango da, motorzale babes eskularruak balio dabe.



Automobiletan, etxe ezbardineko biztanleak bidaiatzen diranean, jesarleku hilara bakoitzeko bi pertsona joan ahalko dira, beti be maskarilla erabiliz eta pertsonen arteko distantzia handiena jagonez.



Taxietan, gidariarena ez dan jesarleku hilara bakoitzeko pertsona bi joan ahalko dira pertsonen arteko distantzia handiena jagonez. Etxe bardineko biztanleak bidaiatzen direnean, gidariarena ez dan jesarleku hilara bakoitzeko hiru pertsona joan ahalko dira. Kasu bietan maskarillaren erabilera derrigorrezkoa izango da.



Jesarleku hilara bakarra daukien ibilgailuetan, gehienez bi pertsona joan ahalko dira, beti be maskarilla erabiliz eta pertsonen arteko distantzia handiena jagonez.



Bidaiariak jesarrita joan behar dabe autobus eta trenen kasuan, jesarleku kopurua murriztu egingo da bidaiarien artean eserleku huts bat egon behar dalako. Salbuespen bakarra etxe berdineko biztanleentzat izango da, alboan dagozan jesarlekuak erabili ahal izango dabezelako. Kasu bietan maskarillaren erabilera derrigorrezkoa izango da.